

**HAUR ETA NERABEENTZAKO  
JARDUERETAN**

**KIROL ELKARTEAREN  
ESKAINZA ABERASTU  
EUSKARA ZAINDUZ**

**KLUBETAKO ANTOLATZAILE ETA  
KOORDINATZAILEENTZAT GIDA**

# AURKIBIDEA

---

**03**

**SARRERA**

---

**04**

**EUSKARAREN PRESENTZIA ETA ERABILERA  
ZAINTZA**

---

**05**

**ZUZENDARITZA TALDEA IBILBIDEAREN  
GIDARI**

---

**10**

**URRATSEZ URRATS**

---

**17**

**KIROLARIEN PARTE HARTZEAREKIN**

---

**34**

**BALIABIDE LAGUNGARRIAK**

---

# Sarrera

Hurrei eta nerabeei begirako kirol jarduerak jarduera hezitzaileak dira. Kirola bera egin eta lantzen da, baina horretaz gain hainbat balio ere lantzen dira: aniztasuna, genero ikuspegia edota, hizkuntza berdintasuna.

Euskararen ezagutzak nabarmen gora egin du azken urteetan, bereziki EAEn. Haur eta nerabeen gehiengoa euskara ulertzeko eta erabiltzeko gai da. Kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartuz, gizartean ematen ari diren aldeketetara egokitu daiteke kirol elkarten eskaintza, eta eskaintzaren kalitatea hobetzeko modua ere bada haur eta nerabeen beharrei egokiago erantzungo dielako.

"Euskararen erabilera normalizatzeko behar-beharrezkoa da gaur erabiltzen ez den eremuetara iristea gure hizkuntza eta helburu hori lortzeko arlo ezberdinetan erein behar da euskararen hazia. Hori horrela izanik, aspaldi jarri zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunek (HPS) arreta hizkuntzak erabilera informala duen eremuetan, bereziki aisialdiaren esparruan. Gazteen kasuan, eskolaz kanpoko jarduerak eta guneak lantzea dagokigu, euskara kontsumitu, sortu eta erabiltzeko aukerak erraztu eta euskararen erabilera areagotzeko.

Gure errealitate soziolinguistikoa askotarikoa da. Gazteek euskararekiko dituzten pertzepzioak, bizipenak, gaitasuna eta erabilera ere askotarikoak dira. Erabilera erdigunean jarri beharra dago, gune desberdin askotan. Eta gune horietako eskola-adineko gazteen artean euskararen erabileran eragitea hartu behar dugu jomuga.

Ikerketek argi adierazten dute kirola dela EAeko gazteen sozializazio-eremu garrantzitsuenetakoa. Baita eskolan euskaldundutako gazte belaunaldi berrien eskolaz kanpoko jarduera nagusia ere. D ereduko kirola eta Euskara Kirolkide ikerketa-proiektuek adierazi bezala, kirola da euskararen erabilera sustatzeari begira eskola eta kalearen arteko zubi lana egin dezakeen esparrua. Ildo horri tiraka, zubi horren habe egokiak dira Eusko Jaurlaritzaren Kirolean Euskara Sustatzeko Plana eta horri lotutako zein elkarlanean eraikitako hizkuntza politika berezia.

Zabala eta askotarikoa da kirol-egituren mundua: kirol federazioak, epaileen batzordeak, klubak eta horietako barne-eragileak (zuzendaritzak, entrenatzaileak, jokalaria, guraso elkarteak), kirol bakoitzeko elkarte erreferenteak, eta abar. Hori dela eta, funtsezkoa da elkarlanean ekitea 5-18 urte bitarteko gazteen kirol-jardueretan euskararen erabilera hauspotzeko" **Bingen Zupiria, kirolean euskara sustatzeko plana 2021-2024.**

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik bide honetan lagunarriak izan daitezkeen baliabideak eta tresnak garatzen ditugu eta eragileon esku jartzen ditugu. Ondorengo gida honetan kirola jardueretako antolatzaile eta arduradunontzat hainbat oinarri, irizpide eta baliabide aurkezten dira.

# EUSKARAREN ERABILERA ETA PRESENTZIA ZAINTZA

## 1. HAURREN ETA NERABEEN SOZIALIZAZIO BEHARREI ERANTZUTEN ZAIE

### **%17tik gora**

HIZKUNTZAREKIN HARREMANA  
%33RA GERTURATZEA KOMENI DA  
ERRAZTASUNEZ ERABILTZERA  
IRISTEKO. KLASE ORDUKIN %17RA  
HELTZEN DIRA.

### **Bizipen positiboak**

EUSKARAZKO BIZIPEN POSITIBOAK  
BEHAR DITUZTE, EZ DEZATELA  
ESKOLAREKIN SOILIK LOTU

## 2. KIROL ELKARTEAREN ESKAINTZA GIZARTEAN EMATEN ARI DIREN ALDAKETETARA EGOKITZEN DA

### **Euskararen biziberritzean parte hartu**

ESPARRU BERRIETAN ERABILTZEKO  
ETA EGONKORTZEKO AUKERA  
ESKAINTZEN DU KIROLAK

### **Euskarara gerturatzen lagundu**

MODU ATSEGIN BATEAN  
HURBILTZEKO AUKERA EMATEN  
ZAIE GURASO ETA INGURUKOEI

## 3. KIROL JARDUERAK EMATEN DITUZTEN AUKERAK BALIATZEN DIRA

### **Kirola estrategikoa**

GAZTEEN %85AK  
KIROLA EGITEN DU

### **Dinamizatutako jarduera**

ENTRENATZAILEA HIZKUNTZA  
DINAMIZATZAILEA IZAN DAITEKE

# Zuzendaritza taldea ibilbidearen gidari

Haur eta nerabeei begirako kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzera begira, hiru atal hauetan urratsak eman ditzakezue:

**ENTRENAMENDUETAKO  
HIZKUNTZARI  
GARRANTZIA BEREZIA  
EMAN**

**FAMILIEKIN  
KOMUNIKAZIOA  
INDARTU**

**KOMUNIKAZIOA ETA  
PAISAIA LINGUISTIKOA  
ZAINDU**

Erabilera  
buru zehatzak  
lortzera  
bidean

# Entrenamenduko hizkuntzari garrantzia berezia eman

Haur eta nerabeek euskara asko erabiltzeko benetako aukerak izatea nahi da, eta erabilera hori sentsazio eta bizipen positiboekin lotzea. Hori dago planteamendu osoaren oinarrian.

Entrenamenduetako hizkuntzan arreta berezia jarri beharko litzateke, eta horrekin lotuta, partidetako edo kirol konpetizioetako hizkuntzari.

**Entrenamenduei begirako hizkuntza-irizpideak adostu eta elkarteko antolaketan txertatu.**

✓ Entrenatzaile bat hautatzen denean euskara gaitasuna kontuan hartuko da: aukera ikusten bada, euskara dakien norbait hartuko da.

✓ Entrenamenduak euskaraz gidatzeko eskatuko zaie entrenatzaileei, eta horri jarraipena egingo zaio Zuzendaritzatik.

## ✓ Euskara sustatu dezaten baliabideak eskainiko zaizkie. Besteak beste:

- Formazio saioak egiteko aukera sortzen bada, ahalik eta erraztasun gehien emango zaizkie eta parte hartzeko eskatuko zaie.
- Lagungarri izan daitezkeen gida eta argitalpenak eskura jarriko zaizkie.
- Formazio saioetan landutakoa edota giden bidez eskainitakoa erabiltzera eta entrenamenduetan txertatzeko eskatuko zaie.

## ✓ Eroso eta gustura aritu daitezzen, laguntza eskainiko zaie eta bereziki zailtasunen aurrean babesa emango zaie:

- Entrenamendu osoan zehar euskaraz aritzeko mugak ditu? Urratsez urrats eremuak irabaztera gonbidatuko da.
  - Kontuan izan: ohikoa da euskara jakin arren jarduera hori gidatzeko mugak izatea.
- Euskaraz ondo egiten du baina ez oso eroso? Euskara mantentzera animatuko da eta ahalegin hori baloratu eta azpimarratuko zaio.
  - Kontuan izan: erabiliz lortuko du eroso sentitzea.
- Euskara indartzeko jarrera du baina lorpenak ikustea kosta egiten zaio? egiten duen ahalegina baloratuko da.
  - Kontuan izan: lehentasunezkoa entrenatzaileek euskaraz egitea da, eta hortik etor daiteke taldekideek ere pixkanaka bada ere euskaraz egitea lortzea.

# Familiekin komunikazioa eta elkarlana indartu

Familiak bide honetan parte aktiboak izan daitezke, elkarlanerako aukerak eman ditzakete eta zailtasunen aurrean laguntzaileak ere izan daitezke.

**Familiekin komunikazioan eman gai honen berri eta elkarlanera gonbidatu.**

- ✓ **Animatu asko erabiltzera: familien arteko harremanetan euskara asko erabiltzera gonbidatu**
- ✓ **Animo oihuak euskaraz erabiltzera gonbidatu: seme-alabak animatzerakoan euskarazk leloak erabiltzera gonbidatu**
- ✓ **Familiekin harremanei begira, proposatu entrenatzaileei watsap taldeetan euskara ere erabiltzea: gutxienez mezu formal edo ofizialetan.**



# Komunikazioa eta paisaia linguistikoa zaindu

Kirol jarduerarekin lotura zuzena duten komunikazio bideetako hizkuntza zaindu daiteke.

**Kirol taldeko komunikazioetan zer egiten den ikusi eta euskararen presentzia indartzera begirako urratsak eman.**

✓ Sare sozialetako profiletan, publikazio eta karteletan euskarak leku duina izan dezala. Gizartera begirako komunikazioetan zaindu euskararen presentzia, jarri elebietan eta euskarak gutxienez gaztelaniak adinako lekua izan dezala.

✓ Watsap taldeetako hizkuntza zaindu. Kirol klubeko watsap taldeetan, mezu formal edo ofizialak behintzat elebietan jarri.

✓ Esatarien jardunean eta megafoniako musikan euskara zaindu. Leku nabarmena izan dezala.

✓ Sarrerren salmenta elebietan jarri. Euskarak gutxienez gaztelaniak adina leku izan dezala.

Komunikaziora eta paisaia linguistikora begira laguntza behar baduzue, hitz egin zuen herriko edo eskualdeko euskara zerbitzuarekin: elkarlanerako prest egongo dira.

# Urratsez urrats

Aztertu zein den abiapuntuko egoera, eta aukeratu urratsez urrats haur eta nerabeei begirako kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzera begira zer egin daitekeen.

**ZEIN DA ABIAPUNTUKO EGOERA?  
EGIN DIAGNOSIA**

**ZEIN URRATS EMANGO DIRA?  
JARRI HELBURU LORGARRIAK**

**EGIN JARRAIPENA ETA EMAN GARRANTZIA  
EGINDAKOARI**

**EGIN JARRAIPENA ETA EMAN GARRANTZIA  
EGINDAKOAR**

# Zein da abiapuntuko egoera? Egin diagnosia.

Gaur egun euskaraen presentziak eta erabilerak nolako lekua duen ikusten bada, errazagoa izango da eman daitezkeen urratsak zehaztea.

**Zein da euskararen presentzia eta erabilerari dagokionez abiapuntua?**

✓ **Zehaztuta daude entrenatzaileei begirako hizkuntza irizpideak? Adibidez:**

Talde guztietan/batzuetan entrenatzaileek euskaraz jakitea eskatzen da.

Zehaztu diren hizkuntza-irizpideak betetzen dira.

Entrenamendu eta partida edo lehiaketetan euskaraz egitea eskatzen zaie euskaraz dakiten entrenatzaileei.

Baliabideak eskaintzen zaizkie euskaraz dinamizatu ditzaten entrenamenduak eta partidak.

Jarraipena egiten zaie irizpideak betetzen diren eta laguntza behar ote duten jakiteko



## **Komunikaziora begirako irizpideak ezarrita daude? Adibidez:**

**Sare sozialetako profiletan, eta kalera begirako publikazio eta karteletan euskarak leku duina izatea.**

**Watsap taldeetan mezu ofizialak gutxienez elebietan izatea.**

**Partida edo lehiaketetan esatariak jartzen direnean, euskarak gutxienez gaztelaniak adinako lekua izatea.**

**Musika erabiltzen bada, euskarazko musikak leku narbarena izatea.**

**Sarrerren salmentako prezioak elebietan izatea.**



## **Familiekin harremanetarako irizpideak jarrita daude?**

**Kirol jarduerarekin lotutako euskarriak elebietan izatzea: izen-emate orriak, familientzako oharrak eta abar.**

**Familiak euskara asko erabiltzera gonbidatzea, besteak beste, partida edo lehiaketetan.**

# Zein urrats emango dira? Jarri helburu lorgarriak.

Abiapuntuko egoera zein den ikusi ondoren, aukeratu helburuak. Helburu lorgarriak jarri eta zehaztu emango dituzuen urratsak.

Zein dira helburu egoki eta lorgarriak?

Entrenamenduetara begirako helburuak



Euskaraz dakiten entrenatzaileak jartzea

- Txikienen taldeetan
- Haur eta nerabeekin diren talde guztietan



Euskaraz dakiten entrenatzaileak euskaraz egitea animatzea

- Gutxienez jardueraren atal batzuk euskaraz izatea eskatzea
- Jarduera osoan zehar euskaraz aritzeko eskatzea



Baliabideak eskaintzea entrenamenduak eta partidak euskaraz dinamizatu ditzaten

- Lagungarri izan daitezkeen gida eta webgunek eskura jartzea
- Formazio saioak eskaintzea



*Baliatu formazio saioak entrenamenduak hobetze bide moduan. Eskaini hezitzaileei baliagarri zaizkien dinamika eta ariketak. Besteak beste: beroketerako, teknifikaziorako eta abar.*



Jarraipena egitea irizpideak betetzen diren eta laguntza behar ote duten jakiteko

- Hezitzaileei hizkuntzaren argazkia egiteko eskatzea hiru hilero

## Komunikaziora begirako helburuak

➔ **Idatziko euskarietan euskarak gutxienez gaztelaniak adinako lekua izatea:**

- Sare sozialetako argitalpenetan
- Iragarkietan
- Partiden berri emateko kartel eta esku-orrietan
- Sarrera salmentetako prezioetan

➔ **Watsap taldeetan gutxienez mezu formalak edo ofizialak elebietan izatea:**

- Kirol elkartetik sortutako eta kudeatutako watsap taldeetan
- Elkartetik bideratutako ohar eta abisuetan

➔ **Partida edo lehiaketetan esatariak jartzen direnean, euskarak gutxienez gaztelaniak adinako lekua izatea**

➔ **Entrenamenduetan edo partida eta lehiaketetan musika erabiltzen bada, euskarazko musikak leku narbarena izatea. Besteak beste, kirol zelaiko megafonian.**

➔ **Entrenamenduetan edo partida eta lehiaketetan musika erabiltzen bada, euskarazko musikak leku narbarena izatea. Besteak beste, kirol zelaiko megafonian.**

## Familiekin komuniazioa eta elkarlana

### ➔ Kirol jarduerarekin lotutako euskarriak elebietan izatea:

- Izen-emate orriak
- Familiei bidaltzen zaizkien idatzizko komunikazioak

### ➔ Familiak euskara asko erabiltzera gonbidatzea:

- Animoak emateko oihuak euskaraz izatera animatzea eta tresnak eskaintzea
- Familien artean euskara asko erabiltzera gonbidatzea
- Euskaraldian parte hartzera gonbidatzea



**Helburu lorgarriak izatea garrantzitsua da, eta noiz landu nahi diren ere zehaztea komeni da:**

- Denboraldi honetarako helburua izango den
- Hurrengo denboraldirako helburua izango den
- Oraingoz ez ote den helburu hori aurreikusten

# Egin jarraipena eta eman balioa egindakoari.

Gizartean ari diren aldaketetara egokitzen ari zarete kirol elkartearen eskaintza. Helburu handiak zein txikiak izan, zuen ahalegina positiboa da eta lorpenak zoriontzekoak dira.

**Jarraipena eginaz lorpenak ikusi eta bistarazi lorpen horiek**

## ✓ Jarraipena egin jarritako helburuei:

Kirol ekarteko kideren bati eman jarraipena egiteko ardura, norbaitek ardura hartzen badu errazagoa da adostutakoa aurrera eramatea.

Gutxienez urtean behin, eta ahal balitz hiru hilero, erreparasatu zehaztutako helburuak eta lorpen maial ikusi.

## ✓ Familiei, bazkideei edota gizarteari begirako komunikazioetan, bistarazi lorpenak eta garrantzia eman

## ✓ Denboraldiz denboraldi erreparasatu helburuak eta saiatu garapen bat izan dezaten: atalez atal eta urratsez urrats lortu euskarak leku handia izatea eta lagundu kirolariei euskara asko eta gustura erabiltzen.



# Kirolarien parte hartzearekin.

Kirol elkartetik egiten ari zareten bide honetan gonbidatu kirolariak ere parte hartzaile eta eragile izatera.

## **Hartutako bidearen eta hautatutako helburuen berri eman. Adibidez:**

Jakin dezatela entrenatzaileak badakiela euskaraz eta euskaraz egingo diela. Edo, entrenamenduko atal batzuk gutxienez euskaraz gidatuko dituela.

Konturatu daitezela ez ditugula euskaraz aritzera behartuko, eta, aldiz, euskaraz eroso eta gustura aritzen laguntzeko ahalegina egingo dela eta euskara ere balio indartsuekin lotzea nahi dela.

## **Laguntza eskatu eta gonbidatu ekarpenak egitera. Adibidez:**

Entrenatzailearen ahalegina erraztu dezaketela beraiek ere berari euskaraz eginaz.

Eroso sentitzen diren neurrian, ahalik eta euskara gehien erabiltzera gonbidatzen ditugula.

Lagungarri izan daitezkeen ideiak proposatzera gonbidatzen ditugula.

## **Partida edo lehiaketa hasiera eta amaierako lehiarako oihua euskaraz izatera animatu.**

Gizartean  
ematen ari diren  
aldeketetara  
egokitu kirol  
elkartearen  
eskaintza, eta  
eskaintzaren  
kalitatea hobetu  
haur eta  
nerabeen  
beharrei  
erantzunez.

# Ebete Hizkuntza Zerbitzuak

Markel Baroja Laita  
Iñaki Eizmendi Arsuaga



ebete

Euskararen erabilera sustatzeko  
baliabideak eta tresnak